


# Al-Andaluseko emir eta kalifa baskoiak



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA  
@irazustabarrena

**M**ilagro (Nafarroa), 860. Kordobako emir Muhammad I ibn Abd ar-Rahmanen erasoaldi batean, Gartzea Enekoz Iruñeko bigarren erregearen seme Orti eta biloba Oneka atzeman zituzten, eta Al Andaluseko hiriburura eraman.

20 urtez bahituta izan ondoren itzuliko ziren Iruñera; Orti I.a Gartzez errege izendatuko zuten aita hil zenean eta Oneka Azeari Antso Larraungoa lehengusuarrekin ezkonduko zen bigarren bez. Baina ez zituzten giltzapean gatu izan; errege leinuari zegozkion era handiak izan zituzten Kordobako gordean eta emirerriko agintariarekin harreman adeitsu eta estuak izan zituzten. Batez ere Onekak, emirraren seme eta oinordeko Abd Allahrekin ezkondu baitzen lehenengo aldiz. Baina ez zen emirraren familian odol baskoia sartzen lehena izan. Beti ere Ibn Hayyan, Al-Udri eta garaiko beste kronikari batzuen arabera, Abd Allahren ama ere baskoia zen.

Onekak eta Abd Allah I.ak hiru seme-alaba izan zituzten. Muhammad II.a semea izango zen hurrengo emirra eta hark ere emakume baskoia hartuko zuen emazteztat: Muzna.

Muhammad eta Muznaren seme Abd ar-Rahman III.ak bere burua kalifa izendatu zuen eta Kordoba Mendabaldeko Kaliferriaren hiriburu bihurtu. Bilakera hura justifikatzeko, omeiatarren oi-




'ABD AR-RAHMAN III.A ETA BERE GORTEA', DIONISIO BAIXERAS, 1885. KORDOBako LEHEN KALIFAREN BIRRAMONA, AMONA ETA AMA BASKOIAK ZIREN.

nordeko zela argudiatu zuen, Mahomaren oinordeko, beraz. Baina baskoien seme, biloba eta birbiloba izaki, baskoietik gehiago zuen arabiarretik baino. Ibn Hayyanek jaso zuenez, Al-Andaluseko lehen kalifa ilegorria zen, azal zurikoa eta begi urdina, eta ilea hennaz tindatzen omen zuen itxura arabiarra goa izateko.

Eta hala ere, Maryam baskoiarekin ezkondu zen. Haien seme Alhaken II.ak ere Subh izeneko esklabo baskoia hartu zuen haremean. Atal honetan bertan jaso genuenez (ARGIA, 2508. zenbakia), Subhek

Hisham kalifaren ama izateaz gain, benetako botere politikoa lortu zuen, hasieran Almanzorrek batera eta, ondoren, haren aurka jardunez.

Almanzorren seme Abd ar-Rahmanek ez zuen lortuko kalifa tituluari eustea, 1009. urtean hil baitzuten. Kaliferria Taifan erresumetan zatituko zen orduan. Baina ezetz asmatu Abd ar-Rahmanen ama Abda nongoa zen? Baskoia, jakina. Gartzea Santxez II.a *Ikaratia* Iruñeko erregearen arreba zen, Antso Nagusiaren izeba, beraz, eta sorterrian Urraka esaten zioten. ●



## Agripina ez omen zen hain gaiztoa

Agripina Gaztea (K.o 15-59), Kaligularen arreba, Klaudio osabaren emaztea eta Neron ama, bere maltzurkeriagatik eta, besteak beste, senarra hiltzeagatik da ezaguna. Baina Emma Southon historialari ingelesak haren biografia argitaratu berri du, bestelako irudia azalduz. "Diplomazialari eta politikari bikaina izan zen. Bere izenean agintzen

utzi izan baliote, enperadore handizat genuke, esaterako, Marko Aurelio bezala". Tazito eta Suetonio historialarien bidez izan dugu nagusiki Agripinaren berri, beti ustelkeriari eta gaiztakeriari lotua, baina, Southonen arabera, "soilik gizonetzko boteretsuekin erlaxionatuta aipatzen da testuetan, haien ekintzen menpean". ●